

# Altza atzo eta gaur

.....

Baserriak duela mende erdi, hormigoizko dorreak gaur

Gaur egun ezagutzen dugun Altzak ezer gutxi du ikustekorik duela mende erdi inguruko Altzarekin.

Donostiarekiko loturak, zabalkunde urbanistikoak eta hazkunde demografikoak erabat aldatu dute bere itxura eta nortasuna. Historia berreskuratu eta jendeari gogora arazteko ahalegin bat eginez, duela urte batzuk Altzako Historia Mintegia sortu zen. Altzatar talde honek donostiar guztiei eta bereziki altzatarrei bere iragana ezagutarazi nahi die.



Alkatetza ere urtetan izan du Altzak. Hona hemen eraikuntza zaharra. (Altzako Historia Mintegiko Fototekaren

Bilduma. Album Pikabea).

Donostiak bere menpe eduki nahi izan duen bitartean, altzatarrek beti izan dute komunitate bat osatzen duten kontzientzia.

Felix Elejaldek Altzari buruz hainbat ikerketa eta idatzi egin ditu, eta bere esanetan, historian zehar, Donostiaren menpe egon arren, alor ekonomikoan autonomia handiz jokatu izan du Altzak.

Berezko nortasuna eta herri kontzientzia hau adibide askorekin egiaztatzen du Felix Elejaldek. 1390. urtean esate baterako, altzatarrek San Martzial eliza eraiki zuten

herri osoa elkartu eta Iruñeko gotzaiari baimena eskatu ondoren. Aurrerago, bere hilak Altzan bertan lurperatzeko baimena ere lortu zuten.

## Independentzia epealdiak

Beti izan ohi ditu bere-agintariak: epaileak, errejidoreak, diputatuak, zinegotziak... Baina alkatetik ez, Foruaren arabera, hori Donostiako alkateari baino ez zegokion. Altza ez zen behin ere erdi independentzia honekin konformatu, honela, 1821ean Fernando VII erregearen eskutik inde-

pendentzia lortu zuen. Baina 1823an, erregeak, bere izaera aldakorraren ondorioz, indargabetu egin zuen 1821eko dekretua.

Altzatarrek ez zuten etsi eta 1879an berriro lortu zuten independentzia, eta are gehiago, 1910ean hiri maila eman zion Espainiako Gobernazio Ministrariak.

## Mugak


14,5 kilometro karratuko hiri honek ipar aldetik Pasaiarekin zuen muga; Molinaoko errekararen ondotik Errenteriara ere iristen zen Eskalantegi

kaleraino.

Hegoaldean Astigarragarekin mugatzen zuen Irumugarrieta, Kutarro, Larrain eta Artxurenera arte iristen zelarik.

Donostiarekin zuen muga Urumea ibaian hasten zen eta Ametzagaintik, Lizarditik (trenbidea eta egungo errepidearen arteko kruzea) eta Uliako ur biltegitik pasa ondoren, Monpaseko karabinero kuarteraino iristen zen.

Beraz, Altza ziren gaur egungo Egiaren zati bat, Martuteneren zati bat, Ategorrieta, Intxaurren, Herrera, Marrutxipi, Rotea, Oleta, Santa Barbara,



Bidebieten 16 pisu eta gehiagoko dorreak eraiki zituzten 70. hamarkadan

Bidebieta, Molinao...

### Anexioa

1936ko guda zibila eta Kontzertu Ekonomikoa desagertzea oso garrantzitsua izan zen Altzaren etorkizunarentzat. Zergabilketa gehien ezabaketa oso kaltegarria izan zen. Egoera hau Donostiak aprobeztatu zuen eta 1939an Anexio Akta sinatu zen. 1940ko martxoaren 16an sartu zen indarrean; 54 urte beraz, Altza Donostia egin zutela.

### Desitxuraketa

Donostiako eta Pasaia-ko portuaren garapeneko zuzen zuzeneko eragina izan dute Altzan.

XIX. mendearen bukaratik 1940ra arte, jardineriak deitutakoak egin en batipat, honela joan en eraikitzen Mirakruz,

Ategorrieta, Julimasene, Mons, Sarroeta...

Anexioa ondoren, ekin-tza handirik gabeko denboraldi bat pasa eta 1955etik 1970era bitartean, auzotegi batzuetan banatuta joan ziren etxebizitzak eraikitzen. Garai hartakoak dira N<sup>a</sup> S<sup>a</sup> del Coro, Irurak, Los Luises, San Isidro, Santa Barbara, Roteta, Arrizar, Los Boscos, Arriberri...

1970etik aurrera, ahalik eta etxebizitza gehien egiteko altuera handiko eraikuntzak egin dira. Honela sortu dira Bidebieta-La Paz, Casanao, Elizasu, Larratxo, Jolastokietta...

### Hazkundera

50. eta 60. hamarkadako inmigrazioa jasotzeko auzo bilakatu zen Altza. Etxe asko ekimen

## Ai gure Donosti intsumiso hau!



Maltzurra zara gero, Donostia gurea. Kaskarina zinela bagenekien ba baina moztorro, joku perilosu eta maskarak hain gustoko zenituenik norke otezekien, pikaro halakoa?

Zure hiru txulo horietatik sartu diren mamu eta monsturu sakratu eta inpernuzko guztiak onartu dituzu apetatsu, alditsu eta sinotsu azken bolada honetan.

Harrera ona egin diezu joan ziren garaietan galdutako disdira eta ospea ekarriko dizkizutela agindu duten PPko soldadutxoek. Galdetuko dizut noizbait zergatik eta seguru andre dotore, serio, *liberala* eta eskualderako piskatxo alboratua zarela erantzungo didazula. Eta nik, axeri, onartu aitorpena jakin badaikit eta begiko dituzula eskuinak botatzen dizkizun loreak.

Aparta zarela norke ukatu? PPkoen maitale hauskorra eta beldurrezko erresuman jauna jabe dabilzan zeluloidezko izaki guztien amorus basa Zine fantastikoaren astearren barruan.

Maitale bikaina zara zu Donostia. Aldabera, buruti eta amodio kontuetan arina. Intsumiso eta piupirina. Ibilkeria duzu zenbaitetan tinko eta irmo. Bestetan aldiz, dantza eroan zabilta, guapa. Horrexegaitik maite zaitut, tontuna.

ofizialak bultzatuta egin ziren, kalitate kaskarrekoak eta kanpotik zetorren langile jendearentzako.

1900. urtean 2.103 biztanle zituen Altzak, 1950ean 8.857, 1960an bikoiztu egiten da kopurua, 16.413 eta 1986an berriz, 44.384 (Altza udalerriak betetzen zuen lurretan kokatutako jendeaz ari gara beraz, Bidebieta, Intxaurren, e.a. sartuz), gaur egungoaren antzekoa, azken urteotan ez baitu gora egin popula-

## hau Donostia!



BEGONA DEL TESO

zioak.

Jendetza honen ia erdia Donostiatik kanpo jaio da eta %35 gutxi gora behera Euskal Autonomi Elkartetik kanpo.

Iraganeko nortasunari eustea ez da gauza erraza, baina ez ezinezkoa. Horretarako ari dira lanean Altzako Historia Mintegiko kideak eta beste hainbat altzatar ere.

EDURNE OTAMENDI

ARGAZKIA: EDURNE KOCH